

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

KULTURA ETA KIROL SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 48/2019 Foru Dekretua, azaroaren 5koa. Onestea Gazteriaren Foru Erakundeak sustatutako ikastetxeen programei aplikatu zaizkien prezio publikoak eta araudia

Tasa eta prezio publikoei buruzko ekainaren 27ko 9/2018 Foru Arauak (ALHAOn78 zenbakia, 2018ko uztailaren 6koa) 25.1 artikuluan ezarri zuenez, Diputatuen Kontseiluaren eskumena da erabiltzaileei ematen zaizkien zerbitzuengatik eskatu behar zaien prezioa finkatzea eta aldatzea.

9/2018 Foru Arauko 24. artikulua xedatzen du arrazoi sozialak, ongintzakoak edo interes publikokoak daudenean, aurreko atalean ezarritako parametroak baino prezio publiko txikiagoak ezarri ahalko direla (gutxienez kostuak ordaintzeko modukoak), aurrez aurrekontu aurreikuspenak eginda, diruz lagundutako prezioaren zatia ordaindu ahal izateko.

Gazteriaren Foru Erakundeak ikasturtean zehar ikastetxeei zuzenduta dauden hainbat programa antolatzen ditu, funtzio ludikoa izateaz gain pedagogia- eta heziketa-funtzioak gauzatzeko asmoa dutenak, ikasleen heziketa osatzeko helburuarekin. Programa hauek hizkuntza murgiltzea nabarmendu nahi dute, euskaraz zein ingelesez, eta aipatutako Erakunde Autonomoaren gazte aterpetxeetan burutzen dira.

Gainera, programa hauek estereotipoei eta generoko rolei aurre egiten dizkieten eta neska eta mutilen arteko elkarbizitzarako espazioak sortzen dituzten jarduerak sustatzea dute helburu, non euren gaitasunak garatuko dituzten eta praktika sexistei aurre egingo dizkieten, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 legeak, unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzari buruzko 28., 29. eta 30. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik.

Horretarako, berdintasunerako hainbat helburu garatuko dira espezifikoki eta programazioa eta jarduerak Gazteriaren Foru Erakundeak aisialdiko jardueretan genero perspektiba integratzeko eskaintzen dituen material didaktikoei egokituko dira, zehazki GFEk argitaratutako aisialdiko jardueretan indarkeria sexistaren prebentziorako Begiraleentzako gida praktikoari.

Halaber, indarrean dauden berdintasunerako legeek arautzen duten bezala, enpresa esleipenduna kontratuarekin erlasionaturiko dokumentazio guztian sexista ez den lengoia erabiltzera derrigortzen da, baita sortutako eta erabilitako informazio guztia sexuen arabera bereiztera ere.

Horrela, interes publikoko helburu argiarekin, gazteriaren prestakuntzan, baloreen transmisioan eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako sustapenean zuzeneko ondorioa duen goi-mailako kalitateko prestakuntza eskaintzen delako, eta bide batez, ikasturtean zehar aterpetxeen betetzea bermatzen delako, bereziki neguko hilabetetan, eta inoiz ez egindako gastua berreskuratzeko edo orekatzeko helburuarekin, Kultura eta Kirol Sailak Gazteriaren Foru Erakundeak bultzatzen dituen ikastetxeen programetan izena emateko prezio publikoen onarpena proposatzen du.

Horregatik, tasa eta prezio publikoei buruzko aipatutako Foru Arauaren 23., 24., 25. eta 26. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, Gazteriaren Foru Erakundeak bultzatu dituen ikastetxeen ekintzengatik ordaindu beharreko prezio publikoa onestea proposatzen da.

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Horiek horrela, Ekonomia Jardueren eta Deszentralizatutako Zerbitzu Juridikoen Jarduerari buruzko urriaren 30eko 15/1987 Foru Arauak 7. artikuluan xedatutakoaren harira Arabako Foru

Aldundiaren Antolaketari, Funtzionamenduari eta Lege Araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 8. artikuluan xedatutakoa kontuan hartu, eta Kontuhartzailletza Zerbitzuaren ezinbesteko eta alde zuzeneko txostena eskatu da.

Horregatik guztiagatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak eta Kultura eta Kirolen Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bileran gaia aztertu ondoren, hau:

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Gazteriaren Foru Erakundeak bultzatu dituen ikastetxeen ekintzetan parte hartzen dutenek ordaindu beharreko eranskin ageri kuoten prezio publikoen araudia onartzea.

Bigarrena. Ebazpen hau ALHAO argitaratzea. Argitaratzen den egunetik bertatik izango du indarra.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko azaroaren 5a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Kultura eta Kirol Saileko diputatua

ANA DEL VAL SANCHO

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Finantza eta Aurrekontu zuzendaria

EDUARDO LÓPEZ DE AGUILETA DÍAZ

ERANSKINA

Araudia, Gazteriaren Foru Erakundeak bultzatu dituen ikastetxeen ekintzeangatik ordaindu beharreko kuoten prezio publikoarena

1. artikulua. Zerga gaia

Zerga gaia da Gazteriaren Foru Erakundeak bultzatu dituen ikastetxeen jardueretan izena ematea.

2. artikulua. Ordaintzera behartuak

Parte hartzen duten ikastetxeak daude ordaintzera behartuta.

3. artikulua. Izena emate kuotak

Egitaratuaren eta horren iraupenaren arabera da izen emate kuota.

Ikastetxeen jarduerak

IKASGELAK	
MODALITATEA	KUOTA EUROTAN
A: 4 egun + bazkaria	100,50
B: 2 egun + bazkaria	57,80
ARABAZ BLAI	
Modalitate bakarra: 2 egun + bazkaria	59,00
2019-2020 ikastaroa	
ECO SCHOOL / THIS IS NOT AN ENGLISH CLASS	
Modalitate bakarra: 4 egun + bazkaria	87,00
2019-2020 ikastaroa	

4. artikulua. Sortzapena

Zernahi jardueratako erreserbaren esleipena jakinaraztean sortuko da kuota ordaintzeko beharra.

5. artikulua. Ordaintzeko era

Inskripzioa egiaztatutakoan eta ordain gutun egokia egindakoan ordainduko da, bai diru-bilketan laguntzen duten erakundeetan, bai Euskal Administrazioaren Ordainketa Pasabidean. www.euskadi.eus/mipago.

6. artikulua. Kudeaketa eta administrazioa

Prezio publiko hauen kudeaketa eta administrazioa Gazteriaren Foru Erakundearen, hots, Arabako Foru Aldundiko erakunde autonomoaren eta Kultura eta Kirol Sailari atxikitakoaren, eginkizun dira.